

Erle europarra

Apis Mellifera




30 milioi urte daramatzate gure planetan, **20.000 subespezie** desberdin baino gehiago ezagutzen dira eta guztiak ez dute eztia ekoizten.

Loreen nektar eta polenaz elikatzen dira eta elikatzen diren bitartean naturaren orekarako funtsezkoa den jarduera burutzen dute.

Erleak intsektu polinizatzaile garrantzitsuenak dira, polen garraioa egiterakoan, lore batetik bestera, landare espezie askoren ugalketan parte hartzen dute.

Erleak gutxi gora behera **50.000 erlez** osatutako erlauntzetan bizi dira. Kolonia bakoitzean hiru erle mota daude, **erle langileak, erregina eta erlamandoak**.

Erle europarra **urrezko kolorekoa** da eta **lerro horizontal beltzak** ditu. Eztenari lotuta pozoia daukan poltsa dauka, baina soilik emeak ziztatu dezakete.

 Joan den mendetik gaur egun arte, erle populazioak jaisten joan da. Gutxitze honen arrazoi nagusiak habita naturalaren galtzea, pestiziden erabilera eta asiako liztorrak bezalako espezie harraparien areagotzea dira.

DESKUBRITU
IBAIKO
FAUNA ETA
LANDARETZA



La avispa asiática *Vespa Velutina*

Es una especie invasora en Europa. Ataca a colmenas de abejas melíferas como las de la abeja europea.



Vespa Velutina

DESCUBRE
LA FAUNA
Y LA FLORA
DEL RÍO




Erle guztiak ez dira berdinak

Gehiago ikasi nahi duzu beraiei buruz?



Erregina



Beraien funtzioa erregina ernaltzea da, espeziaren jarraitasuna ziurtatuz. Guztiak dira arrak, indartsuak eta tripontziak.

Langileak



Erlauntzaren oinarria, denak eme antzuak dira. Irteten dira nektarra jasotzera eta loreak polinizatzera. Gainera, elikagaia prestatu, abaraskak eraiki, erlauntza garbitu eta babesten dute

Erlamandoak



Bakarra dago erlauntz bakoitzean. Handiago da eta egunero 3.000 arrautza jartzera heldu daiteke.